

“Txakolin Etxea” HORMA-PINTURAREN BIGARREN ZATIAREN PROIEKTURAKO ETA HORI AURRERA ERAMATEKO LEHIAKETA, LEIOAKO MENDIBILE JAUREGIA ELKARTEAK SUSTATUA.

Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko Pintura Masterraren eta Leioako Udalaren kolaborazioarekin.

Leioako Mendibile Jauregia ElkarTEak lehiaketa honen deialdia egiten du, ElkarTEak zehaztutako helburuak oinarri, arte eta kulturarik gazteena sustatzeko xedez.

1. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa hau irekita dago Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, 2016-2017 ikasturtean, matrikulatuta dauden ikasleentzat, baita aipatu fakultatean ikasketak amaitu dituztenentzat ere, oraindik ez badira hamar urte baino gehiago igaro ikasketak amaitu zituztenetik.

2. MODALITATEA

Leioako Mendibile Jauregiko (Mendibile 42) behe hormetan pintatzeko den horma-irudi proiekturako lehiaketa irekia. Oinarriekin batera, hormen argazkiak doaz, zehaztuz horma-irudia zein zonaldetan egin behar den.

3. GAIA

Edizio honetarako gaia librea da, baina positiboki baloratuko da eraikina Bizkaiko TXAKOLIN ETXEA dela aintzat hartzea.

4. IZEN-EMATEAK

Proiektuetan, nahitaez agertu behar da autorearen izena eta abizena. Lehiaketara aurkezten diren lanek, nahitaez, proiektuaren izenburu bat eduki behar dute identifikazioa errazteko.

Paperean aurkeztuko dira eta kopia edo eranskin bat gehitu ahalko da euskarri informatikoan.

Lanekin batera, 2016-2017 ikasturteko matrikulari dagokion frogagiriaren fotokopia erantsiko da, edo hala badagokio, ikasketak amaitu izanaren ziurtagiria. Horrez gain, lehiaketarako inskripzio orria ere erantsi beharko da, lanak aurkezteko lekuan bete daitekeena. Gutun-azal itxian aurkeztu beharko dira biak, eta gutun-azalaren kanpoaldean, izenburua eta autorearen izen-abizenak jarri beharko dira, harremanetarako telefono zenbaki batekin.

Lanak euskarri zurrunean (kartoi-luma) bukatuta aurkeztu beharko dira, erakusgai jarriko diren moduan.

5. AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea 2017ko otsaliaren 13tik 24ra bitartekoa izango da, biak barne. Leioako Mendibile Jauregiko ordutegia lanak entregatzeko: asteartetik larunbatera, 12:00-13:00 eta 16:00-17:00. Horrez gain, Leioako UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateko atezaindegian ere entregatu ahal izango dira lanak, astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara.

6. EPAIMAHAIA

Bost pertonez osatuta egongo da epaimahaia: UPV/EHUko ordezkariak, Mendibile Jauregia Elkarteko ordezkariak eta Leioako Udalekoak.

7. LANAK HAUTATZEA

Epaimahaiak aukeratuko du, aurkeztutako lanen artean, lehiaketarako zeintzuk onartzen diren. Lan horiekin, erakusketa egingo da Leioako Mendibile Jauregiko erakusketa aretoan, 2017ko martxoaren apirilaren zehar.

8. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Erabakia publikoa eta atzeraezina da, eta martxoaren 6ko 13:00etan emango da, Leioako Mendibile Jauregian. Horretarako, prentsaurrekoa egingo da Jauregiko instalazioetan.

9. ERAKUSKETARAKO HAUTATUAK IZAN DIREN BAINA SARIRIK JASO EZ DUTEN LANAK ERRETIRATZEKO EPEA

Erakusketarako hautatuak izanik SARIRIK JASO EZ duten proiektuak erretiratzeko epea 2017ko maiatzaren 9etik 18era bitartekoa izango da, Mendibile Jauregian bertan. Epea igarota, antolakuntzak ez du ardurarik hartuko aurkeztutako originalak entregatzeko.

Oharra: lanak hartzeko ordutegia 11:00-15:00 eta 16:00-17:00 izango da.

10. SARIA

Sari ekonomikoa Leioako Mendibile Jauregia Elkartek ordainduko du. Lanik eta horma-irudi proiekturik onenerako saria HIRU MILA (3.000) EUROKOA izango da.

Saria bi epetan ordainduko da: lehen MILA ETA BOSTEHUN (1.500) EUROAK saria irakurri eta entregatzeko ekitaldian ordainduko dira.

Bigarren MILA ETA BOSTEHUN (1.500) EUROAK horma-irudia amaitutakoan ordainduko dira.

11. PROIEKTU IRABAZLEA AURRERA ERAMATEA

Proiektuaren irabazleak horma-irudia egiteko zuzendaritza teknikoaren ardura izango du. Horma-irudia 2017ko apirilean egingo da.

Beharrezko material, aldamio, lizentzia eta gainerako gastu guztiak Mendibile Jauregia Elkarteak ordainduko ditu.

Proiektuaren irabazleak lana margotzeko laguntzailerik behar izanez gero, Pintura Masterreko praktiketako ikasleak hartuko dira.

12. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiak aurreikusita ez dauden arazoak edo egoerak konpontzeko hartzen dituen erabakiak onartzea eta ados egotea dakar.

13. KONTSULTAK

Komisarioak, JOSÉ MANUEL LORITE EHU/UPVk esleituta.

Edozein kontsultatarako:

Email: jmlorite7@gmail.com

Oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen edozein egoera lehiaketako antolakuntzak ebatziko du egokien den moduan.